

PLE 05-OCT-23 (5/CP)

**IRUÑEKO UDALAREN 2023KO AURREKONTU LUZATUAN
Europako dirulaguntzen BIDEZ FINANTZATUTAKO 205.743,43 euroko
KREDITUAK SORTZEA, gizarte-zerbitzuen modernizazio digitalerako**

PLE 05-OCT-23 (5/CP)

«IKUSIRIK Iruñeko Udalaren 2023ko aurrekontu luzatuaren aldaketari buruzko espedientean jasota dauden agiriak (Alkatetzak 2022-12-30eko ebazpenaren bidez onetsi zuen aldaketa hori, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aurrekontuen eta gastu publikoaren arloan garatzen duen irailaren 21eko 270/1998 Foru Dekretuak ezarritakoarekin bat Europako dirulaguntzen bidez finantzatutako proiektuen gastuetarako beharrezkoa baitzen) eta aurrekontua betetzeko indarreko oinarriekin bat, HAU ERABAKITZEN DA:

1.- Kreditu-sorrera onestea 70/23110/626000 partidan (Harrera eta komunitatea eta informazioa prozesatzeko ekipoak garatzea), Gizarte-zerbitzuen modernizazio digitalerako, 205.743,43 euroko zenbatekoarekin, Europar Batasunaren dirulaguntzen bidez finantzatuta (diru-sarreraren 20/79700 partida).

2.- Aldaketa hauei aplikatzen ahalko zaie aurrekontua betetzeko indarreko oinarrietako 10.aren 8. apartatua, aurrekontu-aplikazio berriak sortuz gero gastuaren behin betiko egozpenean